

# Osaquidecha chu-chu

TXILLARDEGI



**URRATU** ezinezko diruditen markak, behin eta berriz, eta ziztu bizian, urratzen dira herri zorigaitzoko honetan.

Recalde-ren garaia gaitzitu ezinak zitzaizkien bertako kottaiet: baina Buesa beharrela erakutsi digu geure inoxxokeria. Posible zen, PNVren eskutik eta Mari Karmen Garmendiaren irribarraz, euskararen kontrako gorrotxo lotsagabeikiago erakustea: «ya se iran habituando los euskeromanos».

Gaur Osaquidechako zerbitzueta joan beharra gertatu zait. Gehiengo eskulduna nabarmen dagoen herri horietako batean.

«Harrera-Recepción» iruski dut, eta bertara hurbildu naiz:

— ¿Cómo dice usted? —berak haserre antzean. Euskaraz hasi bainaz...

«J'ai compris». Letrero dotore hura ere... «de la época de los vasos». Bertako ohar berri gutxi-guztiak, salbuespenik batere gabe, espainolez: «Espere usted sin llamar... Para las citas con el médico, hacer las peticiones con dos días de antelación...» Eta abar, eta abar. Telefonoan gauza bera: erdara hutsuz.

Sartu diren bezeroak, gaur behintzat, denak eskuldunak. *Isisilik* mintzo dira beren artean, lotsaturik bezala. «Harrera-Recepción»dik iritren diren esaldiak, aldiz, salbuespenik batere gabe berriro, erdara batuan, eta *goratik*.

— Si. Yo querrría una cita para el doctor X, — nekez ari baserritar itxurakoa. *Morroina* nagusiarri umilki mintzo... kolonietan bezalaxe. Frankismoaren garaiko «Delegación de Abastos» haiek bururatu zaizkit. Baina haiek Franco-ren butegoak ziren. Hauek... 'gureak' omen dira (???)

Barberá, Recalde, Buesa, «Osaquidecha» osoa. Gehiegiegi dirudi.

Baina, lasai, «Irrinchi va que chuta»... (Gudariaren ereserkiak...)

«Y olé», como suele contestar Buesa. Jakina!

# Demokraziaren adjetiboak

JOXERRA GARZIA



‘BURGESA’

zen Franco (azkenean) hil zen garaian demokraziari maizenik erantzen genion adjetiboa.

Esan nahi genuen ez gintuela asetzen hainbat urtez behin botoa eman eta kitoan errenditzen zen ereduak. Areago nahi genuen, auzo elkarteak indartu, sindikatuak, herri-erakundeak... gizartearen sendotuta eta egitaratu, estatuak jar ez zezan.

Ez dakit noiz galdu ote zituen demokraziak adjetibo hori eta gainerako guztiak. Gaur egun maizkulaz idazten da behintzat, botoa eman eta Kitoko demokrazia, adjetibo guztiak sobera bait lituen, eta nire honen gisako diskurtsoak modernitate zendu baten aldarri postumoak baino ez bide dira.

Baina begira dezagun ingurura. Frantzia, Italian, Alemanian gertatu eta al da demokrazia miserable baten aurkako nolabaiteko erantzun zapuztua?

Gurean ere aurki dugu botoa emateko eskubidea dutenen laurdena biztanle guztion etorkizuna erabakitzen. Ikasiko al dugu garazi demokraziari adjetiboak jartzen?

«Demokrazia informatikoa» izan liteke aurrean aurterapausu batean. Aldian aldiko arazo isilutsuak bozketa bidez erabakitzea ez baita, ordenagailuen aroan, batere zaila. Gatazka frangotatit libra gaitzake garazi eginitiko erreferendum batek. Autobidearenean beranduz dugu. Ea eskarmeta hartzen dugun hurrengorako.

# HEMEROTEKA

● EL DIARIO VASCO

tikoan den edo zentzu estrategiko duen.

ALBERTO SURIO

## Taktika edo estrategia?

Barne eztabaida horretan —galderaz jositako kontinuumoa baisten du— daturik azpimarragarriena da jende gehienak onartzen duela ETA jadanik 'ez dela abangoardia' nahitaezko erreferentzia baikik, beraz, KASen tesi tradizionaletako bat, erakunde terroristar borrokaburutzat hartzen zuena, gainbehera joan da, lehen ETA eta Armadaren arteko negoziazioa gainbehera joan zen bezala. Ez dakiguna da aldaketa horrek sakoneko mugimendu bati erantzuten dion eta ez soilik egoerakiko egokitzapen semantikoari, besteak beste komunismoaren erorketak eragina. Egintzek bakarrik erakutsiko dute ea egokitzapen hori benetan tak-

● LAVANGUARDIA

## Joko Olinpikoak eta katalantasuna

Historian zehar ikusi dugu katalanok proiektio unibertsala nahi dugula, geure ondareari eta geure nortasun kolektiboko ezaugarriari uko egin gabe. Hasieratik, hautagai olinpikoak bultzatu eta gero COOB'92ren sorreran parte hartu zuten persona eta instituzioek —baita, noski, Estatuak eta COEek ere— eritzi zioten Barcelona'92ren loria, besteak beste, errealitate katalanaren onapenarekin eta errealitate hori nazioartean hedatzearekin erabat loturik doala.

JOSE MIQUEL ABAD



Aurterea, aurterea! INEM deketua. RICARDO Y NACHO / EL MUNDO

● Navarra

## ETA aipatu gabe

Batek galde diezaiake bere buruari, halere, zer lortu nahi izan duen Gobernuburu batek indarkeriaren arazoari buruz kontsentsua lortzeko asmoz

egindako idazkiarekin: idazkiaren lau orrialdeetan ez du behin ere ETA aipatu eta, dabilen hizkera gehiago dagoiko ardi galduie zuzendutako gotzainen zenbait jarretari arduradun politikoki bati baino.

EDITORIALA

# ZUZENDARIARI

## Zibilizatu gabe omen gaude!

Irakurleak seguraski jakingo duenez Amezketa herri eskulduna da erabat. Elkar harremanetarako hizkuntza bakarra euskera dugu.

Aztera begirada bat bota eta sarritan gogoratu ohi ditugun 'garai ilunetan' inon baino arazo gutxiago izan ditugu euskeraz mintzatzeko. Amezketa heldu diren maisu-maistra, idazkari eta mediku gehienek euskeraz ikasi egin dute errealitatearen poderioz, edo aurka behintzat ez eger egin jendaurrean. Irain eta mespretxuak izango ziren, dudarik gabe, baina hauek herritik, ghetotik, ateratzen ginenean jasaten genituen batipat.

Gaur egunean Amezketa Udal 'Udal-erri Elebakarren Mankomunitateko' partaide da. Honek suposatzen du euskeraz bizitzeko daukagun ohitura, nahi eta gogo horrek nolabaiteko babes instituzionala (Udalarena) daukala.

Garai 'ilunetatik' errekonozimendu 'ofizialaren' garaietara iritsi gara eta hara zer gertatu zaigun herrian. Herrira etorri den medikuak gaztekeraz bakarrik dakielako eta euskeraz ezer gutxi, euskeraz ezer gutxi jakin eta dakiena erabiltzeko prest ez dagoela, euskeraz dakien apurra ez erabiltzeaz gain gure hizkuntzaren aurkako jarrera daukala, eta hau

dena gutxi ez balitz, honako hau bota diekla bere kontsultan zeuden herritarrei: «... la gente de este pueblo está sin civilizar, es gente atrasada, no sabe hablar castellano...».

Hitz hauek zuzendu dizkie herriko medikuak herritarrei eta nik dakidanez (hobe oker banego) inortxok ere ez dio ezer esan persona horri.

Baina, zer egin mediku honekin? Zer esan? Nola erantzun? Norengana jo? Nola jasan dezakegu honelako iraina? Norena da errua? Galdera asko eta erantzun gutxi.

Dena dela, nahiz eta auzi honetan Udalak ziurtsari hankak lotuta eduki, sinbolikoki bada ere, modu batera edo bestera zerbaite esan edo egin beharko lukeela derizot.

LUKAS ETXEBERRIA  
Amezketa (Gipuzkoa)

## Adierazpen askatasuna?

Azkenaldi honetan Partido 'Socialista' 'Obrero' eta Español delakoak Donostiako Udalean eta horrekin batera Udal Kirol Patronatuan agintea hartu zuenetik, bertako langileak gure sindikal zein adierazpen askatasunari dagozkien eskubideen aurkako neurri gogorrik jasaten ari gara, beti ere, enpresa honen zuzendaritzak ezarritako araudi eta

'lege dekretuak' direla medio.

Horren adierazgarri garbia litzateke Odon Elorzak bultzatu eta bere taldekin eta Susana Corcuera beteratzen duen agiri eta iragarkietarako oholeri bizuruko araudi berria, horretarako Patronato honen zuzendaritzaren laguntza ezinbestekoa izan delarik.

Aspaldiko urteetan komunikazio sindikal zein publikoak sarrean zeuden oholetan jarri izan dira, orain dela gutxi zuzendaritza informazio hori zentzen hasi den arte, behintzat. Azkenik, orain gutxi, inosaketa hau neurririk gabe ezarrit. Altzako Polikorolegian Patxi Beloki zinegotziaren aginduz (ez dakigu zer ari den Patxi Beloki zinegotzia kontu honetan) 4 udaltzain agertu ziren —bideo kamara eta gutzi— publikoari orokorrean zuzendutako txartelak grabatu eta kentzeko asmoz. Handik pirka batera harreman publiko eta sindikaletarako sarrean zeuden ohol horiek kentzeko agindua iritsi zen, Susana Corcuera zinegotziaren agindua, alegia.

Guzti hau dela eta, agintearen eskutik datozkigun jarrera harro hauek salatu nahi ditugu, sindikal zein adierazpen askatasuna murriztea bait dute helburu, askatasuna edozein araudi eta dekreturen gainetik dagoela aldarrikatuta.

UDAL KIROL PATRONATOKO LAB  
Donostia


# GAIA JARRITA



## Eskulako emakumeen maskarada

Buhame, kauter, zirtzil ta bertze datoz kantu ta dantzara xiberotarrek ikusgarri hau deitzen dute maskarada «emakumeok gizezkoak baino guttior ez gara» Eskulakok pentsatu dute eta atera plazara gaur Donibane Lohizunen nork ez du eginen algara.

JEAN LOUIS 'LAKA'



Barzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 80090

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentaria: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZIEEN ETXEZAHARRETA, INAKI URUA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93  
Egokiza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna. 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Arabak: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73  
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi) dorrea / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77  
Bizkaia: Barroeta Aldekoa, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60  
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaita / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 / Faxa: 59 25 75 11